ARABAKO FORU ALDUNDIA

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea
Instituto Foral De Bienestar Social

DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

# Desgaitasuna Egiaztatzeko Txartela



# Desgaitasun Ziurtagiria

## Zer da?

Muga fisiko, psikiko edo adimeneko
edo zentzumeneko muga motaren bat daukan pertsonari
desgaitasuna duen pertsonaren legezko baldintza
egiaztatzen duen agiri ofiziala da.

Desgaitasun gradua ehunekoan adierazten da
eta desgaitasuna %33tik aurrera aitortzen da.

# Desgaitasuna Egiaztatzeko Txartela




## Zer da?

Desgaitasun egoera egiaztatzea erosoagoa egiten duen txartela da, diru-zorroan eraman dezakezu eta.

Doan da.



## Nork eskura dezake txartela?

Araban bizi ohi direnak eta %33ko edo gehiagoko desgaitasun gradua aitortua duten pertsonek.

## Nola erabili behar da txartela?

- Txartela titularra den pertsonak bakarrik erabili dezake.
- Zure NAN edo AIZarekin batera erakutsi beharko duzu beti.
- Adin txikikoek, nahiz eta NAN izatera behartuta ez egon, agiri hau lortu beharko dute, txartela lortu nahi badute.
- Txartela lapurtu, galdu edo hondatuz gero, kopia bat eskatu ahal izango da.
- Txartelean agertzen diren datuak zuzenak ez badira, aurreko txartela eman beharko da eta txartel berri bat eskatu aldatutako datuekin.

# Zein datu dauzka txartelak?

- Izena, abizenak, NAN.
- Balio data:

  Balio-epea ez duenean: txartela mugarik gabe erabil daiteke. Balio-epea duenean: behin-behineko desgaitasun balorazioetan.




- Desgaitasuna gradua.
- Mugikortasun baremoak.



| Egoera | | | Zer egin behar duzu? | Egiaztatzeko Txartela |
|---|---|---|---|---|
| Desgaitasuna onartzen zaizunean | | | Ezer ere ez, automatikoa da | Postaren bidez zure etxean txartela jasoko duzu  |
| Txartel berria behar baduzu (galdu, hondatu edo datu aldaketak…) | |  | Informazio atalean adierazten diren helbide eta lekuetan eskatu | |
| Desgaitasun gradua aldatzen badizute | %33a baino gutxiagoko gradura | | Txartela itzuli | |
| | %33a baino gehiagoko gradura | | Ezer ere ez, automatikoa da | |

# Informazioa eta eskaera inprimakia

- **Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen web orrian:**
  www.araba.eus/ifbs

- **GOFEren Informazio eta Gizarte Arretarako Bulegoan:**
  San Prudentzio kalea, 30. 01005 Vitoria-Gasteiz

- Eskatzailea bizi den herriko **Oinarrizko Gizarte Zerbitzuan.**

Logotipo honek identifikatzen ditu IFLAk (International Federation of Library Associations and Institutions) eta Inclusion Europek irakurtzeko zailtasunak dituzten pertsonei zuzendutako materialentzat ezarritako nazioarteko gidalerroak jarraitzen dituzten materialak. Agiri hau Lectura Fácil Euskadi-Irakurketa Errazak berrikusi du, eta berak abala ematen du.



LG G 3-2020